



EBAZPENA (08/2009 esp., TAKOGRAFOAK)

Osoko Bilkura

Javier Berasategi Torices jauna, lehendakaria

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakariordea

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, kidea

José Antonio Sangroniz, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2010eko urtarrilaren 20an

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Juan Luis Crucelegui Garate jauna txostengile dela, ebazpen hau egin du TAKOGRAFOEI buruzko 08/2009 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, SIEMENS-VDO AUTOMOTIVE S.A. enpresaren kontra (gaur egun CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A.). Izan ere, Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 2. artikuluan debekatutako jokabidea izan zuen, ustez, SIEMENS-VDO AUTOMOTIVE S.A. enpresak ez zuelako eman nahi izan TALLERES ELECTROMECÁNICOS SCALEXTRIC S.L. enpresak eskatutako takografo analitikoak instalatu, prestatu, begiratu eta aldi behin berrikusteko prestakuntza.

AURREKARIAK

1. 2007ko urriaren 5ean salaketa bat sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan (aurrerantzean LDEZ). D.J.A.S.R.(e)k aurkeztu zuen salaketa hori, TALLERES ELECTROMECÁNICOS SCALEXTRIC S.L. (IFK: B-48770176) enpresako administratzaile bakarra den aldetik, SIEMENS-VDO AUTOMOTIVE S.A., Sociedad Unipersonal (IFZ: A-58387887) enpresaren kontra (orain CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A.).

Salatutako gertaeretan azaldu zen SIEMENS-VDO AUTOMOTIVE S.A. enpresak ez zuela eman nahi izan TALLERES ELECTROMECÁNICOS SCALEXTRIC S.L. enpresak eskatutako prestakuntza. Prestakuntza hori, Takografoak instalatu, prestatu, begiratu eta aldi behin berrikusteko tailerren baimenari buruzko Industria eta Energia Ministerioaren 1982ko irailaren 24ko Aginduan xedatutakoaren arabera (aurrerantzean 1982ko irailaren 24ko Agindua), ezinbesteko baldintza da salatutako enpresak egiten dituen takografo analitikoak instalatu eta konpontzen lan egiten duen enpresa izateko baimena eskuratu eta berritzeko.



Salaketarekin batera, bertan azaldutakoa egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia ere aurkeztu zen, besteak beste kontratuak, baimenak eta gutunak.

2. 2007ko azaroaren 5eko ebazpenaren bitartez, LDEZk erabaki zuen isilpeko informazioa hasiko zela zigor-espedita hasi baino lehen (hala badagokio), Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legea hautsi izanaren zantzurik dagoen argitzeko.
3. 2007ko abenduaren 18an LDEZk informazioa eskatu zion SIEMENS-VDO AUTOMOTIVE, S.A. enpresari, egiten dituen takografo analitikoaren motei buruz, banaketa-kanalei buruz, tailerrak baimentzeko moduari buruz, langileek jakintza praktikoak dituztela egiaztatzeko moduei buruz, eta ematen dituen prestakuntza-ikastaroei buruz.

2008ko urtarrilaren 30ean salaketaren erantzuna jaso zuen LDEZk. Bertan adierazi zen ez zutela emango eskatutako informazioa, lehenengo eta behin ez zelako egiaztatu TALLERES ELECTROMECAÑICOS SCALEXTRIC, S.L. enpresak prestakuntzarako eskubiderik zuenik eta, bigarrenaz, ez zegoelako loturirik eskatutako informazioaren eta instrukzioaren artean.

2008ko otsailaren 21ean LDEZk berriro eskatu zion informazioa enpresari (143-146 folioak) eta 2008ko apirilaren 1ean jaso zuen erantzuna.

4. 2007ko abenduaren 10ean LDEZk honako informazio hau eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo eta Industria Seguritasuneko Zuzendaritzari: baimendutako takografo analogikoen moten zerrenda, Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako tailerren zerrenda, baimenak eskuratzeko tailerrei eskatutako baldintzak, etab.

2008ko urtarrilaren 25ean jaso zuen LDEZk eskabide horren erantzuna.

5. 2007ko abenduaren 19an LDEZk honako informazio hau eskatu zion Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioko Industria Garapeneko Zuzendaritza Nagusiari: takografo analogikoekin lan egiteko baimendutako tailerren zerrenda, 1982ko irailaren 24ko Aginduaren zortzigarren artikuluko d) letraren interpretazioa, marka bakar batentzat lan egiteko beharri dagokionez, eta langileen prestakuntza egiaztatuko duena fabrikatzailea ez izateko aukera (078-079 folioak).

2008ko urtarrilaren 24an jaso zuen LDEZk eskabidearen erantzuna.

6. 2008ko martxoaren 27an eta 2008ko apirilaren 3an LDEZk honako informazio hau eskatu zion Euskal Autonomia Erkidegoan takografo analitikoak instalatu, konpondu eta berrikusteko baimendutako tailer gisa



erregistratutako tailerrei: baimenduta dauzkaten takografo analogikoen marken zerrenda, marka horiek konpontzeko baimendutako tailerrak izan ahal izateko eskatzen dizkieten baldintzak, nahitaezko prestakuntza-ikastaroei buruzko informazioa eta sarrera eskuratzeko modua, noizbait ikastaro horietan parte hartzea ukatu zaien eta horretarako arrazoiak, eta hilean/urtean esku-hartzen dituzten (instalatu, konpondu, begiratu) takografo analogikoen kopurua, markak zehaztuta.

2008ko apirilaren 2tik 2008ko apirilaren 17ra bitartean jaso zituen erantzunak LDEZk.

7. Isilpeko informazioaren fasean Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legea hautsi izanaren arrazoizko zantzuak ikusi zirenez, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariaren 2008ko uztailaren 23ko ebazpenaren bitartez, SIEMENS-VDO AUTOMOTIVE S.A. enpresaren kontrako zigor-espeditentea hasiko zela erabaki zen, ustez Lehia Defendatzeko Legearen 2. artikuluan debekatutako jokabidea izan zuelako. Bada, espedientearen instrukzioaren idazkaria eta instruktorea izendatu ziren. Espedientea hasteari buruzko ebazpena 2008ko uztailaren 28an jakinarazi zitzaion bai salatzaileari eta bai salatuari, eta salaketaren kopia ere eman zitzaion azkenari.
8. 2008ko irailaren 23an, 2008ko apirilaren 1eko erantzunean azaldutako gai batzuk gehiago azaldu behar zirela kontuan hartuta, LDEZk informazioa eskatu zion SIEMENS-VDO AUTOMOTIVE, S.A. enpresari, banaketa-kanalei buruz, tailerrak baimentzeko moduari buruz eta prestakuntza-ikastaroei buruz.

2008ko urriaren 20an jaso zuen erantzuna LDEZk. Bertan adierazi zen Euskal Autonomia Erkidegoan POZO COGULLADA, S.A. sozietatearekin daukatela banaketa-kontratua (sinatuta daukaten kontratuaren kopia erantsi dute). Baimenei zegokienez erantzun zuten Administrazioak ematen dituela, ikastaroak demandatuak zein banatzaileak eman ditzakeela, ez zekitela tailer ofizialen bati prestakuntza-eskabidea ukatu zitzaionik, eta prestakuntzan parte hartzeko ezinbestekoa dela markaren zerbitzu ofiziala izatea.

9. 2008ko irailaren 30ean LDEZk informazioa eskatu zion POZO COGULLADA, S.A. enpresari, enpresa horrek SIEMENS-VDO AUTOMOTIVE S.A. enpresarekin duen merkataritza-harremanari buruz, SIEMENS VDO marka instalatu, konpondu edota mantentzen duten tailerrekin duen merkataritza-harremanari buruz, prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko irizpideei buruz, eta ikastaroen eskabideak nork ziurtatzen dituen eta nola kudeatzen diren galdetuz.

2008ko urriaren 21ean jaso zuen erantzuna LDEZk. Bertan, besteak beste, honakoa adierazi zen: POZO COGULLADA S.A. emakidadun ofiziala da; takografoak eta horien osagarriak merkaturatzen ditu; bere emakida-



eremuak beste probintzia batzuk ere hartzen ditu EAEko probintziez gain; baimenak autonomia-erkidegoetako agintaritza eskudunek eman behar dituzte; kontratuak fabrikatzaileak, emakidadunak (hau da, haiek) eta tailerrak sinatzen dituzte, baina haiek ez dituzte eskuartean; ikastaroak fabrikatzaileak edo fabrikatzailearen ordezkari ofizialek ematen dituzte; ikastaroetan parte hartzeko nahikoa da zerbitzu ofizial batek eskabidea egitea; ez dute EAEko tailerren eskabide bat ere ukatu; eskabideren bat jasotzen dutenean fabrikatzaileari edo bere lege-ordezkaritari jakinarazten diote, ikastaroen egutegian sar dadin.

10. 2008ko urriaren 10ean LDEZk honako informazio hau eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzari: Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko arauen zerrenda, Eusko Jaurlaritzaren eskumenak, baimena eskuratu eta berritzeko tailerrei eskatzen zaizkien baldintzak, enpresa salatzailea noiz izan den baimendutako tailerra, etab. 2008ko abenduaren 5ean jaso zuen LDEZk eskabidearen erantzuna.

11. Salatutako enpresak sozietatearen izena aldatu zuen, eta lehen zuen SIEMENS-VDO AUTOMOTIVE S.A. izenaren ordez, CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN S.A. izena hartu zuen. 2008ko maiatzaren 5ean inskribatu zen aldaketa hori Merkataritza Erregistroan, eta 2008ko ekainaren 2an argitaratu zen (inskripzio-zenbakia: 62).

12. 2008ko urriaren 28an LDEZk informazioa eskatu zion CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN S.A. enpresari. Berrito galdetu zion nola jardun behar duen bere takografoekin lan egin nahi duen tailer batek baimena eskuratzeko, eta zein kasutan ukatzen dituzten baimenak. Halaber, baimena ukatu dioten Euskal Autonomia Erkidegoko tailerren zerrenda eta ukatu izanaren arrazoi zehatzak aipatzeko ere eskatu zion.

2008ko azaroaren 14an jaso zuen egindako eskaeraren erantzuna LDEZk. Bertan adierazi zen zerrenda hori merkataritza-arloko eremu juridiko pribatukoa zela, borondate-adostasuna kontratu arautzaile batean dagoela islatuta, ez dagoela baimenik Ministerioaren 1982ko irailaren 24ko Aginduan ezarritakoa betetzen ez bada, ez dagoela baimenak tramitatzen dituen beste sozietaterik, eta ez dutela jakin sozietateren bati baimena ukatu zaionik.

13. 2008ko abenduaren 17an espedientearen instruktoreak, Lehia Defendatzeko Legearen 50.3 artikuluan ezarritakoa betez, Gertaerak Zehazteko Orria idatzi zuen (549-556 folioak), eta interesdunei jakinarazi zitzaizen, 2009ko urtarrilaren 7an salatzaileari eta 2009ko urtarrilaren 8an salatuari.

14. 2009ko otsailaren 4an aipatutako zigor-espedientearen instruktoreak, interesdunek Gertaerak Zehazteko Orriari egindako alegazioak jaso



ondoren, probidentzia bidez dekretatu zuen instrukzio-fasea itxiko zela. Probidentzia hori ere behar bezala jakinarazi zitzaien interesdunei.

15.2009ko martxoaren 17an zigor-espediterearen instruktoreak ebazpen-proposamena idatzi zuen, eta bertan honakoa proposatu zion LDEAri:

“**LEHENENGOA:** Adieraz dezala Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 2. artikuluko 1. eta 2.c) atalek debekatutako lehia murrizteko jardunbideak egin zirela, honako hauek, hain zuzen ere:

TALLERES ELECTROMECAÑICOS SCALEXTRIC, S.L. enpresari ez zion aukerarik eman prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko, bidezko arrazoirik gabe. Arauetan xedatutakoaren arabera, gainera, bera da ikastaro horiek emateko aukera duen bakarra, eta ez dago beste modurik ikastaro horietan parte hartzeko. Kontuan hartu behar da enpresa horrentzat ezinbestekoa dela ikastaro horietan parte hartzea, gutxienez 1985. urtetik garatu izan duen jarduerarekin jarraitu ahal izateko. Izan ere, ikastaroak egin eta egiaztatu ezean, Eusko Jaurlaritzak ezin izango dio baimendutako enpresaren ziurtagirik eman.

BIGARRENA: CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A. enpresa (IFZ: A-58387887; sozietatearen helbidea: Sepúlveda 11, Alcobendas, Madril) har dadila arau-hauste horren erantzulezat.

HIRUGARRENA: Zigorren zenbatekoa zehaztean, kontuan izan ditzala honakoak:

- a) CONTINENTAL-AUTOMOTIVE S.A. enpresak, nagusitasuna duenez, erantzukizun berezia dauka merkatuko bere jokaeretan (erantzukizunaren mailakatzeari buruz, EEJAren 322/1981 Epaia, Michelin), batez ere nagusitasun hori arau-xedapen baten bitartez duelako eta ez dagoelako produktua/zerbitzua ordeztzeko beste modurik.
- b) Takografo analogikoen araudi, funtzionamendu, instalazio eta kontrolari buruzko prestakuntzaren merkatua —SIEMENS VDO markako takografo analogikoekin lan egiten duten enpresei bidezko baimena eskuratu edo berritzeko beharrezko ziurtagiriak lortzeko— beherantz doa, eta hamar urteko epean (hau da, 2016an) desagertuko dela aurreikusi da; izan ere, 2006ko maiatzaren 1etik aurrera 1 3,5 tona

¹ 561/2006 (EE) Araudia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2006ko martxoaren 15ekoa, errepide-garraioaren sektorean gizarte-arloko zenbait xedapen harmonizatzeari buruzkoa, eta Kontseiluaren 3821/85 (EEE) eta 2135/98 (EE) Araudiak aldatu eta Kontseiluaren 3820 (EEE) Araudia indargabetzen duena. 29. artikulua: *Araudi hau 2007ko apirilaren 11n sartuko da indarrean, baina salbuespena izango dira [...] eta 27. artikulua, 2006ko maiatzaren 1ean sartuko baitira indarrean. (27. artikulua: 2135/98 (EE) Araudia jarraian*



baino gehiagoko pisua duten edo gidaria barne 9 pertsona edo gehiago eraman ditzaketen ibilgailu guztiek (salbuespenak albuespen), lehenengoz matrikulatzen direnean, takografo digitalak eduki beharko dituzte.

Nabaria denez, prestakuntzak, ezinbesteko baldintza dela baimendutako tailerraren baimena eskuratu edo berritzeko², takografo analogikoetan esku hartzeko merkatua dagoen bitartean izango du eskaria, eta horrek ere beherantz egingo duela aurreikusi da, 10 urteko epea eman zitzaiola 2006. urtetik aurrera zenbatzen hasita.

- c) Bizkaiko Lurralde Historikoan, takografo analogikoetan esku hartzeko merkatuaren % 80 baino gehiago —merkatu horretan SIEMENS VDO takografo analogikoen araudi, funtzionamendu, instalazio eta kontrolari buruzko prestakuntzaren bitartez, besteak beste, baimendutako enpresei ematen zaie parte hartzeko aukera— SIEMENS VDO markako takografo analogikoetarako da.

LAUGARRENA: Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 53. artikulua aipatzen dituen gainerako adierazpenak har ditzala.”

Ebazpen-proposamena behar bezala jakinarazi zitzaien interesdunei. Era berean esan zitzaien, Lehia Defendatzeko Legearen 50.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamabost asteguneko epea emango zitzaiela, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, egokitzat jotzen zituzten alegazioak egiteko.

16.2009ko apirilaren 2an espedientearen instruktoea aldatzeko ebazpena eman zuen LDEZk. Ebazpen hori ere behar bezala jakinarazi zitzaien interesdunei.

17.2009ko apirilaren 27an “CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A” enpresak ebazpen-proposamenaren aurkako alegazio-idazkia aurkeztu zion LDEZri, aipatutako zigor-espedientea artxibatze eskatuz. Hona hemen aipatutako enpresak egindako alegazioak, labur-labur:

1. Lehenengo eta behin, errepikatutzat jo ditu aipatutako enpresak ebazteko dagoen zigor-espedientearen egindako alegazio guztiak.

zehaztu bezala aldatuko da: [...] 561/2006 (EE) Araudia argitaratu eta hogeigarren egunetik aurrera [...], zirkulazioan lehenengoz ipiniko diren ibilgailuek kontrol-tresna eduki beharko dute, 3821/85 (EEE) Araudiaren 1B eranskinean azaldutakoaren arabera.

FOM/1190/2005 Agindua, apirilaren 25ekoa, takografo digitalaren ezarpena arautzen duena. Azken xedapenetatik lehenengoa: *Ibilgailuak takografo digitalarekin matrikulatzeko beharra ezartzen den egunetik aurrera eskatu ahal izango dira agindu honetan araututako takografo-txartelak.*

² “Takografoak instalatzeko enpresak” eta “Takografoak aldi berean berrikusteko baimendutako enpresak”



2. Halaber, ebazpen-proposamenak IV. atalean (14. orrialdea) xedatutakoa faltsua dela esan du. Lehen Auzialdiko Madrilgo 2. Auzitegiaren 1996ko urriaren 11ko epaiaren fotokopia erantsi du, organo horretan 0667/93 zenbakiarekin egin zen zenbateko txikiagoa adierazteko prozeduraren baitan. José Antonio Sarmentero Rodríguez (Talleres T.E. SCALEXTRIC) da auzi-jartzailea eta MANNESMANN KIENZLE S.A. demandatua (650-663 folioak).
 3. Azkenik, salatzaileak salaketa-idazkian erantsi zuen 3. agiria faltsua dela adierazi du.
18. 2009ko maiatzaren 8an sartu zen LDEAn LDEZk bidalitako zigor-espeditentea, ebazpena eman zezan. Espedientearekin batera, txosten bat ere bidali zuen eta, bertan, ebazpen-proposamena eta interesdunek aurkeztutako alegazioak ere badaude.
19. LDEAk, 2009ko ekainaren 12an egindako osoko bilkuran, aipatutako espeditentea tramitera onartuko zela erabaki zuen, probidentzia bidez, eta Juan Luis Crucelegui Garate jauna izendatu zuen txostengile. Probidentzia hori behar bezala jakinarazi zitzaion interesdunei.
20. 2009ko uztailaren 7an CONTINENTAL-AUTOMOTIVE S.A. enpresak idazkia aurkeztu zuen LDEAn, ahozko ikustaldia egiteko eskatuz. Halaber, TALLERES ELECTROMECÁNICOS SCALEXTRIC, S.L. enpresak, 2009ko uztailaren 27an, idazkia bidali zion LDEAri, eta Auzitegiaren esanetara ipini zen ahozko ikustaldia egiteko, horrelakorik egonez gero.
21. 2009ko uztailaren 24an LDEAren Osoko Bilkurak erabaki zuen ikustaldia egingo zela aipatutako zigor-espeditenteari buruz, 2009ko irailaren 22an, goizeko 10:00etan, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan (Donostia-San Sebastián kalea 1, Vitoria-Gasteiz).
22. Ahozko ikustaldia aipatutako leku eta egunean egin zen, eta aldean legezko ordezkariak azaldu ziren bertan. Ikustaldi horretan enpresa salatzaileak adierazi zuen ados zegoela LDEZk LDEAri bidalitako ebazpen-proposamenarekin eta, gauzak horrela, CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A. ren kontrako zigor-ebazpena egiteko eskatu zion LDEAri.
- Aldiz, salatutako enpresak LDEAri eskatu zion espeditentea artxibatzeke ebazpena eman zezala, jarraian labur-labur azaldu diren errugabetze-argudioak kontuan hartuta, eta espeditentearen instrukzioa egin bitartean *CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A.* k egin zituen alegazioak kontuan hartu gabe. Hona hemen:
1. Zigor-espeditentearen instrukzioa egin bitartean, "*CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A.*" defentsarik gabe egon da, ez duelako jakin zeintzuk diren egozten zaizkion gertaera zehatzak. Aitzitik, salatuari jakinarazi zaizkion gertaerak orokorrak izan dira.



2. Era berean, zalantzan jarri du enpresa salatzailearen jarrera eta bere ordezkatuaren kontra zigor-espedita hasi izana, salaketari erantsitako agiriak faltsuak direla esanez. Argudio horri eustearren adierazi du Lehen Auzialdiko Madrilgo 2. Auzitegiaren epaia aurkeztu duela prozeduran, eta horrek gaitzetsi egin duela orain salatzailea denak egindako salaketa, aurkeztutako agiriak faltsuak direla ondorioztatu dela bertatik.

23. LDEAk, 2010eko urtarrilaren 20an egindako osoko bilkuran, espedita horri buruz eztabaidatu eta epaia eman zuen.

24. Honako hauek dira interesdunak:

- TALLERES ELECTROMECAÑICOS SCALEXTRIC, S.L.
- CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A

FROGATUTAKO GERTAERAK.

LDEAk uste du instrukzioa egin bitartean LDEZk egiaztatu egin dituela jarraian deskribatu diren gertaerak:

25. Takografo analogikoak instalatu, konpondu, muntaketa begiratu eta berrikusteko ardura duten langileek horretarako beharrezko jakintzak dituztela egiaztatu beharko dute, takografoen fabrikatzaileak edo bere ordezkari ofizialak emandako ziurtagirien bitartez. Izan ere, baimendutako tailer edo instalatzaileek administrazio eskudunari aurkeztu beharko dizkiote ziurtagiriak, gutxienez hiru urtean behin.

26. Ez dago inolako aukerarik langileen prestakuntza iraunkorra fabrikatzaileak edo haien ordezkari ofizialak ez diren beste erakunde batzuek emateko, horretarako gai hau arautzen duen Ministerioaren Agindua aldatu beharko litzatekeelako.

27. Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saila da, bere lurralde-bulegoen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan takografo analogikoak instalatu eta konpontzeko baimendutako enpresa izateko



baimen-eskabideak ebazteko eskumena duena³, eta baimendutako enpresaren bidezko ziurtagiriak ematen ditu horretarako.

Tailerrek, baimena eguneratuta izateko, hiru urtean behin egiaztatu beharko dute, fabrikatzaileak emandako ziurtagiri baten bidez, takografoak instalatu, konpondu, muntaketa begiratu eta berrikusteko ardura duten langileek esku hartzen dituzten takografo analogikoen markaren fabrikatzaileak edo bere ordezkari ofizialak emandako prestakuntza-ikastaroak egin dituztela.

28. TALLERES ELECTROMECÁNICOS SCALEXTRIC S.L. enpresak gutxienez 1985eko martxoaren 7tik eduki izan du baimena takografo analogikoak instalatu eta konpontzeko enpresaren lanak egiteko.

Hasieran Kienzle markaren tailer ofiziala izan zen (ondoren SIEMENS VDO KIENZLE izan zena) eta, beraz, fabrikatzaile horren baimena zuen bere markarekin lan egiteko. Fabrikatzaile horrekin zuen kontratu-harremana hautsi zenean, eta ondorioz Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailaren baimena galdu zuenean —Industria eta Energia Saileko Administrazio eta Plangintzako sailburuordearen 1993ko irailaren 27ko ebazpenaren bidez geratu zen baimena ondorerik gabe—, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Merkataritza Sailak 1994ko ekainaren 17an emandako baimenarekin lan egiten jarraitu zuen, dekretu honen babespean: 175/1994 Dekretua, maiatzaren 17koa, Industria eta Energia Sailarena, Profesionari Txartelak ateratzeko bidea bateratu eta instalazioak, mantentze-lanak edo industri segurtasunaren alorreko bestelako iharduerak egiten dituzten Enpresa Baimendunentzako eskakizunak zehazten dituena (aurrerantzean maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretua).

Baimen hori hiru urtean behin berritu zen, 2003ko azaroaren 5ean azkenekoz berritu zen arte (2006ko azaroaren 5era arte balio zuen), Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Bizkaiko Lurralde Bulegoko buruak eman zuen baimendutako enpresaren ziurtagirian azaltzen den bezala (011, 521 eta 545 folioak).

29. Maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Profesionari Baimendunen trebakuntzarako Erakunde Onetsiak izenekoek eman ahal izango dituzte prestakuntza-ikastaroak, eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailak baimendutako erakundeak izango dira horiek. Erakunde Onetsi izendatu ahal izango dira, besteak beste, araupeko lanbide-hezkuntzako ikastetxe publiko edo itunduak, Eusko Jaurlaritzak zereginetako hezkuntza eta lanbide birziklapenerako babesturiko zentroak eta bestelako erakunde pribatuak, betiere dekretu horretan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

³ 284/2005 Dekretua, urriaren 11koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena (205. zenbakiko EHAA); Agindua, 2006ko abenduaren 4koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralde-bulegoen egitura organikoa eta funtzionala arautzen duena.



30. Auzitegi Gorenaren 2003ko maiatzaren 5eko epaiaren bitartez, baliogabetu egin ziren maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretuaren I. eranskineko I.18 atala, II. eranskineko II.17 atala eta IV. eranskineko IV.31 atala, takografoei buruzkoak guztiak. Izan ere, Auzitegiak ondorioztatu zuen gai horren eskumena Estatuarena zela eskusiboki eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoak ezin zuela arautu. Horrenbestez, egun horretatik aurrera, takografoekin lan egiten zuten tailerrek fabrikatzaileak edo bere baimendutako ordezkariak egindako ziurtagiriaren bitartez bakarrik egiaztatu behar zuten prestakuntza-ikastaroak egin zituztela.
31. Industria eta Meategiak Administrazio zuzendariak 2003ko ekainaren 6an egindako instrukzioan adierazitakoaren arabera, Auzitegi Gorenaren epaiaren ondorioz eta bertan adierazitakoa betez, epaia eman zen egunera arte emandako txartelek indarrean jarraituko dute, eta maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretuan babestutako beste txartel profesional guztiak bezala berritzeko aukera egongo da. Gauza bera ondorioztatu zen baimendutako enpresei dagokienez.
32. Enpresa salatzailleak, maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretuaren babesean emandako baimena zuela, baimena berriro ahal izateko, eguneratuta eduki behar zuen bere langileen prestakuntza eta, horretarako, beharrezko prestakuntza-ikastaroan parte hartzeko informazioa eskatu zion hainbat aldiz SIEMENS-VDO-KIENZLE enpresari (2006ko abenduaren 22an eta 2007ko urtarrilaren 15ean).
- Honakoa erantzun zion aipatutako enpresa horrek: *“Horiei dagokienez [idazkiei buruz ari da] honen bitartez adierazi nahi dizuegu ezin dugula zuek eskatutakoa bete, ez baitago horretarako oinarririk”*.
33. Eskuratutako erantzuna ikusita —uneko eskabidea ez onartzea—, 2007ko otsailaren 8an TALLERES SCALEXTRIC S.L.k beste idazki bat bidali zion mandatuari, bere eskaera ezin onartu izanaren arrazoiak eta mandatuak deitutako ikastaroetan parte hartu ahal izateko oinarririk ez zegoela uste izateko arrazoiak zehazteko eskatuz. Hori guztia, eskabidea baztertu izanaren ondorioz sortutako egoera Administrazioari jakinarazteko asmoz egin zen.
- Demandatuak, berriro ere, honakoa erantzun zuen: *“[...] berriro esan nahi dizuegu ez dagoela zuen eskaera betetzeko oinarririk”*. Bada, ez zuten bestelako azalpenik eman, eta ez zuten eskabidea bete ez izanaren arrazoirik azaldu.
34. Jasotako erantzunak ikusita, 2007ko martxoaren 27an salatzailleak egoeraren berri eman zion Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari. Halaber, takografoetan esku hartzeko baimenduta zeuden enpresek prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko legeko eskubidea



bermatuta izateko bidezko neurriak har zitzala eskatu zion. Sail horrek, enpresa bere jarduerarekin jarraitzeko defentsarik gabe zegoela ondorioztatu zuenez, informazioa eskatzeko idazkia bidali zion SIEMENS VDO AUTOMOTIVE, S.A. enpresari 2007ko ekainaren 28an, prestakuntza-ikastaroak ukatu izanaren arrazoiak azal zitzaizkion.

35. Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren informazio-eskabidea 2007ko uztailaren 11n sartu zen erregistroan, eta salatuak eman zuen erantzunak ez du ezer ere azaltzen salatzaileari prestakuntza ukatu izanaren arrazoiei buruz, honakoa baino ez baitio: “[...] Administrazio horrek bidali digun eskabidea zein arau eta aginduren bidez dagoen babestuta jakinarazteko eskatu nahi dugu”.

36. LDEZk egindako informazio-eskabideari erantzuteko idazkian, 2008ko urtarrilaren 30ekoan, SIEMENS VDO AUTOMOTIVE enpresak adierazi zuen bai enpresa auzi-jartzailea eta bai demandatua eremu pribatukoak direla eta merkataritza-askatasunaren arauak arautzen dituztela, eta ez dagoela eskubide eta betebeharrak horiek ezartzen dituen inolako itun, kontratu, hitzarmen edo konpromisorik, ez eta eskubide hori eta ondoriozko betebeharrak ezartzen dituen araurik ere.

37. TALLERES ELECTROMECÁNICOS SCALEXTRIC, S.L.k ezin du SIEMENS-VDO markako takografoak konpondu, begiratu, instalatu eta muntatzen lan egin, fabrikatzaileak ez diolako baimen edo aukerarik ematen bere prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko.

38. SIEMENS-VDO markako takografoak dira gehien konpondu, instalatu eta begiratzen direnak bai Bizkaiko Lurralde Historikoan (bertan dago tailerra) eta bai Euskal Autonomia Erkidegoan⁴:

Bizkaian, urtebetean, 3.700 esku-hartze inguru egiten dira takografo analogikoetan: horietatik 3.300 SIEMENS-VDO markakoetan izan ohi dira, eta gainerakoak beste marka batzuetakoetan. Hau da, SIEMENS-VDO markakoen gaineko lanen portzentajea % 90,00 ingurukoa da, eta gainerako % 10,00 beste marka batzuen gainekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan, urtebetean, 9.900 esku-hartze inguru egiten dira guztira: horietatik 8.700 SIEMENS-VDO markakoetan izan ohi dira, eta gainerako 1.200 esku-hartzeak beste marka batzuetakoetan. Horrenbestez, SIEMENS-VDO markaren portzentajea % 88,00 ingurukoa izango litzateke maila horretan, eta gainerako % 12,00 gainerako marketakoa izango litzateke.

⁴

Kalkuluak tailerrek eurek emandako erantzunak oinarri hartuta egin dira (240-246 eta 273-363 folioak).



39. Fabrikatzaileak ez du justifikatu zergatik ez zaion aukerarik eman TALLERES ELECTROMECÁNICOS SCALEXTRIC, S.L. enpresari prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- ALDEZ AURREKO GAIAK.

Frogatutako gertaeratzat hartutakoak Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearekin egiaztatu aurretik, enpresa salatuak ahozko ikustaldian azaldutako gaiak aztertu behar dira. Aurrekarietan adierazi den bezala, enpresa salatuaren legezko ordezkariak adierazi zuen horren kontra hasi zen zigor-prozeduran defentsarik gabe egon dela, Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan ezarritakoaren kontra. Halaber, zalantzan jarri du LDEZk eskumena duen CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A. enpresaren kontra hasitako zigor-prozeduraren instrukzioa egiteko, bai eta salatzaileak aipatutako enpresaren kontra hasitako administrazio-prozeduran duen jarrera ere.

1.- LDEZren eta LDEAren eskumena.

Hasieran, LDEAk aztertu behar du LDEZk zigor-espeditatea hasi eta instruitzeko duen eskumena eta, horrek, hedaturaz, LDEA honek aipatutako prozedura ebazteko duen eskumenari eragiten dio. Gai hori Gertaerak Zehazteko Orriari egindako alegazioetan ere azaldu zen, eta gero ahozko ikustaldian. Bada, erantzun egokia izan du zuzenbidean, zigor-prozeduraren instruktoreak egindako ebazpen-proposamenen, eta horri lotuko zaio Auzitegi hau. Hona hemen hitzez hitz dioena:

“Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehia babesteko dauzkaten eskumenak koordinatzeko otsailaren 21eko 1/2002 Legeak 1.3 artikuluan dio Lehia Babesteko Legeko eskumenak erabiltzea gai honi buruzko eskumenak dituzten autonomia-erkidegoen ardura izango dela (nork bere lurraldean izango du ardura hori), baldin eta jokabide horiek lehia garbia dena delako autonomia-erkidegoan itxuraldatzen badute edo itxuraldatzeko modukoak badira.

Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak, bestalde, honakoa dio 13.1 artikuluan: Autonomia-erkidegoetan lege hau ezartzeko eskumena duten organoek beren lurraldearen baitan lege honen 1., 2. eta 3. artikuluetan aurreikusitako jokaerak aztertzea helburu duten prozeduren betearazpen-eskumenak gauzatuko dituzte.



LDEZren berariazko zereginei dagokienez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak izango dituen eginkizunak ezarri zituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuan daude azalduta; bertako 13.1 artikulua a) artikulua dio Lehia Defendatzeko uztailearen 3ko 15/2007 Legearen 1., 2. eta 3. artikuluan aurreikusitako jokabideengatiko zigor-prozeduren instrukzio, ikerketa eta ebazpen-proposamena dagozkiola.

Azkenik, adierazgarria da 2007ko urriaren 31n Lehiaren Batzorde Nazionalak bidalitako idazkia jaso zela LDEZn, eta bertan aitortu egiten zela Euskal Autonomia Erkidegoko lehia defendatzeko organoek eskumena dutela aztertzen gabiltzan espedienteko ustezko arau-hausteak ikusteko, eta hori bat dator LDEZk horri buruz duen iritziarekin (069 folioa)."

Instrukzio-fasean eskumena LDEZri dagokion bezala, espedientea ebazteko fasean LDEAren da eskumena, Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 24. artikuluan eta LDEA sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak izango dituen eginkizunak ezarri zituen 81/2005 Dekretuaren 2. artikuluan (aipatutako 81/2005 Dekretua aldatu zuen 36/2008 Dekretuan idatzita dagoenez) ezarritakoaren arabera.

Horrenbestez, azaldu diren arrazoibide juridikoak oinarri hartuta, LDEA honek gaitzetsi egin behar du salatuak azaldu duen errugabetze-argudioa: LDEZk ez duela eskumenik zigor-prozedura hasi eta instruitzeko, hedaduraz zigor-prozedura hori ebazteko LDEAren eskumenari eragiten diola.

2.- Zigor-prozedura hastea.

Honi buruz adierazi behar da TALLERES ELECTROMECÁNICOS SCALEXTRIC, S.L. enpresak salaketa ipini zuela LDEZn SIEMENS-VDO AUTOMOTIVE S.A., Sociedad Unipersonal (gaur egun CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A) enpresaren kontra. Salatutako gertaeretan azaldu zen SIEMENS-VDO AUTOMOTIVE S.A. enpresak ez zuela nahi izan TALLERES ELECTROMECÁNICOS SCALEXTRIC S.L. enpresak eskatutako prestakuntza eman. Prestakuntza hori, Takografoak instalatu, prestatu, begiratu eta aldi behin berrikusteko tailerren baimenari buruzko Industria eta Energia Ministerioaren 1982ko irailaren 24ko Aginduan xedatutakoaren arabera, ezinbesteko baldintza da salatutako enpresak egiten dituen takografo analitikoak instalatu eta konpontzen lan egiten duen enpresa izateko baimena eskuratu eta berritzeko.

Salaketa horren ondorioz isilpeko informazioaren tramitea hasi zen Lehia Defendatzeko 15/2007 Legea hautsi izanaren zantzurik dagoen argitzeko, dagoeneko ez dagoen Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia eta Plangintzako zuzendariaren 2007ko azaroaren 5eko ebazpenaren bitartez.



Isilpeko informazioaren tramitea garatzearen ondorioz, eta 15/2007 Legea hautsi izanaren arrazoizko zantzuak ikusi ostean, dagoeneko ez dagoen Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak 2008ko uztailaren 23an erabaki zuen zigor-espeditzea hasiko zela SIEMENS-VDO AUTOMOTIVE, S.A. enpresaren kontra, ustez lege horretako 2. artikuluan debekatutako jokabidea egin zuelako. Hau da, LDEZk, egiaztatutako gertaerak eta isilpeko informazioaren fasean bildutako informazioa oinarri hartuta, zigor-espeditzea hasiko zuela erabaki zuen, LDEZk administrazio-tramite horretatik ondorioztatu baitzuen Lehia Defendatzeko Legea hautsi izanaren zantzuak egon daitezkeela. Horren guztiaren araudi-oinarria Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 24. eta 49. artikulua eta zortzigarren xedapen gehigarria izan dira.

3.- TALLERES ELECTROMECÁNICOS SCALEXTRIC, S.L. enpresa salatzailearen jarrera.

Une honetan bereizi egin behar da salatzaileak zigor-prozeduraren baitan duen lekua. Salatzailea, modu abstraktuan, hirugarren soiltzat hartzen du jurisprudentziak⁵. Gauzak horrela, interesa duten herritar guztiek jakinaraz diezaioke Herri Administrazioari indarrean dagoen araudiaren kontrako gertaeraren bat dagoela. Jarrera berezi horretan, ez luke legitimaziorik izango akordioa aurkaratu edo salaketa artxibatze, kontuan izanda Herri Administrazioak duen zigor-ahalmena erabilita ez dela inolako erabilera edo onurarik ondorioztatuko bere alde. Hala eta guztiz ere, salatzaileak zigor-prozeduran duen jarrera aldatu egin daiteke, eta interesdun bihurtu, zigor-prozedurak babestu beharreko bidezko interesik izatekotan. Konstituzio Auzitegiaren zein Auzitegi Gorenaren jurisprudentziek⁶ behin baino gehiagotan azaldu dute bidezko interesaren kontzeptua interes pertsonal eta zuzeneko interes soila baino zabalagoa dela, eta baliokidea dela abantaila-jarreraren titulartasun potentzialarekin edo asmo hori duenaren titulartasun juridikoarekin. Bidezko interesa baliokidea da abantaila-jarreraren titulartasun potentzialarekin edo asmo hori erabiltzen duenaren erabilera juridikoarekin, asmoak aurrera egitekotan gauzatzen dena.

Horrenbestez, salatzailea eta,aldi berean, bidezko interesaren titularra den subjektuak, beste ezer baino lehen, interesduna izan beharko du administrazio-prozeduraren baitan.

LDEA hau aztertzen dabilen zigor-prozeduran azaldu den kasuan, TALLERES ELECTROMECÁNICOS SCALEXTRIC, S.L. salatzaileak ustez Lehia

⁵ Auzitegi Gorenaren 1987ko ekainaren 23ko epaia; Auzitegi Gorenaren 1991ko martxoaren 13ko epaia; Auzitegi Gorenaren 1991ko abenduaren 18ko epaia; Auzitegi Gorenaren 2000ko urriaren 26ko epaia; Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1997ko urtarrilaren 24ko epaia.

⁶ Konstituzio Auzitegiaren 60/1982 epaia; Konstituzio Auzitegiaren 62/1983 epaia; Konstituzio Auzitegiaren 257/1988 epaia; Konstituzio Auzitegiaren 97/1991 epaia; Auzitegi Gorenaren 1997ko irailaren 29ko epaia; Auzitegi Gorenaren 1998ko urtarrilaren 5eko epaia eta Auzitegi Gorenaren 1998ko uztailaren 3ko epaia.



Defendatzeko Legearen kontrakoak diren gertaera batzuk jakinarazi dizkio LDEZri. Hala ere, enpresa horrek zigor-prozeduran duen jarrera, salatutako gertaerak eta antolamendu juridikoak LDEAri emandako ahalmenak oinarri hartuta, interes soila baino haratagokoa da. Izan ere, bidezko interesaren titularra da eta horrek esan nahi du interesduna dela LDEZk hasitako zigor-espeditentean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 31.1.a artikuluko ezarritakoa oinarri hartuta. LDEAk jakin behar du salatutako gertaerak kontuan hartuta, zigor-ahalmena erabiltzearen ondoriozko ebazpenak onura edo erabilerak eragin ditzakeela TALLERES ELECTROMECAÑICOS SCALEXTRIC, S.L. enpresa salatzailearentzat (jokabide arau-hauslea etetea eta horren ondorioak luditze beharra); hortaz, interesduna da. Hau da, TALLERES ELECTROMECAÑICOS SCALEXTRIC, S.L., LDEZn egindako salaketaren bitartez eta bertan salatutako gertaerak oinarri hartuta, interesduna izango da zigor-prozeduran, prozeduraren helburuarekin duen bidezko interesa dela eta. Horrela bada, TALLERES ELECTROMECAÑICOS SCALEXTRIC, S.L., salatzailea izateaz gain, interesduna ere bada zigor-espeditentean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 31.1.a artikuluko ezarritakoaren arabera.

4.- CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A. enpresa salatuak defentsarik ez izatea.

Enpresa salatuak adierazi duen zigor-prozeduraren instrukzioan defentsarik ez izateari dagokionez, LDEA honek guztiz baztertu behar du. Izan ere, enpresa horrek formal eta materialki izan du LDEZk CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A.ri Lehia Defendatzeko Legearen ustezko arau-hausle gisa egozten dizkion gertaera zehatzen berri. Hain zuzen ere, Gertaerak Zehazteko Orriaren edukia aztertuta, eta batez ere zuzenbideko oinarrietan (lehenengoa eta bakarra) adierazitakoa kontuan hartuta, honakoa ondorioztatu da, hitzez hitz:

“[...] TALLERES ELECTROMECAÑICOS SCALEXTRIC, S.L. enpresari ez zion aukerarik eman prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko, bidezko arrazoirik gabe. Arauetan xedatutakoaren arabera, gainera, bera da ikastaro horiek emateko aukera duen bakarra, eta ez dago beste modurik ikastaro horietan parte hartzeko. Kontuan hartu behar da enpresa horrentzat ezinbestekoa dela ikastaro horietan parte hartzea, gutxienez 1985. urtetik garatu izan duen jarduerarekin jarraitu ahal izateko. Izan ere, ikastaroak egin eta egiaztatu ezean, Eusko Jaurlaritzak ezin izango dio baimendutako enpresaren ziurtagirik eman. Hori guztia lehia garbiaren kontrako jokabidea da, eta Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 2. artikuluko 1. eta 2.c) ataletan azaldutako arau-haustea da.”

CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A.ri egotzitako gertaerak —zigor-prozeduraren instruktoarak Lehia Defendatzeko Legearen kontratatzat hartu dituenak— zehatz daude definituta Gertaerak Zehazteko Orrian, ustez urratu



den aginduarekin batera. Halaber, Gertaerak Zehazteko Orrian azaltzen da interesdunei jakinarazi egin zaiela, eta hala egin zen: 2009ko urtarrilaren 7an salatzaileari eta 2009ko urtarrilaren 8an salatuari. Azkenik, Gertaerak Zehazteko Orrian azaltzen da balizko arau-hausleek erantzun egin ahal izango diotela eta, hala badagokie, egokitzat jotzen dituzten frogak proposatu, jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean. Salatuak, 2009ko urtarrilaren 29an, bidezko alegazioak aurkeztu zizkion Gertaerak Zehazteko Orriari. Bertan adierazi zuen, alde batetik, ez dagoela inolako itun ez araurik salatzailearen eskaera betetzera behartzen duenik, eta, bestetik, ez duela uste espedientearen instrukzioa egin duen organoak eskumena duenik eta ez dagoela horretarako kausarik. Horren guztiaren ondorioz, artxibatze eskatu zuen.

Gainera, ezin da argudiatu, salatuak egin duen bezala, egotzi zaizkion gertaerak orokorrak direnik, zehatz deskribatu baitira Gertaerak Zehazteko Orrian, bai eta urratu duen Lehia Defendatzeko Legearen aginduan ere. Modu berean, ezin da esan horien berri izan ez zuenik, behar bezala jakinarazi baitzaizkio salatuari eta, gainera, salatuak alegazioak aurkeztu dizkio.

Prozesuaren une horretatik aurrera instruktoreak amaitutzat jo zuen instrukzio-fasea, eta ebazpen-proposamena egin zuen. Bada, honakoa proposatu zion LDEAri:

."LEHENENGOA: *Adieraz dezala Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 2. artikuluko 1. eta 2.c) atalek debekatutako lehia murrizteko jardunbideak egin zirela, honako hauek, hain zuzen ere:*

TALLERES ELECTROMECAÑICOS SCALEXTRIC, S.L. enpresari ez zion aukerarik eman prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko, bidezko arrazoirik gabe. Arauetan xedatutakoaren arabera, gainera, bera da ikastaro horiek emateko aukera duen bakarra, eta ez dago beste modurik ikastaro horietan parte hartzeko. Kontuan hartu behar da enpresa horrentzat ezinbestekoa dela ikastaro horietan parte hartzea, gutxienez 1985. urtetik garatu izan duen jarduerarekin jarraitu ahal izateko. Izan ere, ikastaroak egin eta egiaztatu ezean, Eusko Jaurlaritzak ezin izango dio baimendutako enpresaren ziurtagirik eman.

BIGARRENA: *CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A. enpresa (IFZ: A-58387887; sozietatearen helbidea: Sepúlveda 11, Alcobendas, Madril) har dadila arau-hauste horren erantzulezat. [...]"*

Ebazpen-proposamen hori interesdunei jakinarazi zitzaion, TALLERES ELECTROMECAÑICOS SCALEXTRIC, S.L.ri eta CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A.ri, eta interesdunek alegazioak aurkeztu zizkieten. Salatuaren kasuan, errepikatutzat jo ditu zigor-prozeduran egindako alegazio



guztiak, ebazpen-proposamenak IV. atalean (14. orrialdea) xedatutakoa faltsua dela esan du, salatzaileak salaketa-idazkian erantsi zuen 3. agiria faltsua dela adierazi du, eta Lehen Auzialdiko Madrilgo Auzitegiaren epaiaren fotokopia erantsi du.

Hau da, LDEZk CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A. enpresari egotzitako gertaerak behar bezala islatu eta zehaztuta daude, bai Gertaerak Zehazteko Orrian eta bai ebazpen-proposamenean. Agiri horiek behar bezala jakinarazi zaizkie interesdunei, eta interesdunek egokitzat jo dituzten alegazioak aurkeztu dizkiote. Gainera, ebazpen-proposamenaren prozedura-fasera arte instruktoreak jakin ez dituen agiriak ere aurkeztu dira. Horretaz guztiaz gain, ahozko ikustaldia egin da, eta egokitzat jo dituen errugabetze-argudioak azaldu ahal izan ditu bertan salatuak.

Hori guztia oinarri hartuta ondoriozta daiteke salatua inola ere ez dela defentsarik gabe egon zigor-prozedura egin bitartean. Aldiz, zigor-prozeduraren fase guztietan jakin izan du LDEZk egozten zizkion gertaera zehatzak (eta ez orokorrak) zeintzuk izan diren, egokitzat jo izan dituen alegazioak aurkeztu ditu bere burua defendatzeko, eta ahozko ikustaldia ere egin da LDEAren aurrean eta, bertan, bai salatzaileak eta bai salatuak, euren asmoetarako egokitzat hartu dituzten argudioak azaldu dituzte. Hori dela eta, guztiz gaitzetsi behar da enpresa salatuak azaldu duen errugabetze-argudioa, zigor-prozeduran defentsarik izan ez duela dioena.

BIGARRENA.- APLIKA DAITEZKEEN ARAUAK

2007ko irailaren 1ean sartu zen indarrean Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legea. Ebazteko dagoen espediente honen kasuan, LDEZk Lehia Defendatzeko Legearen urraketatzat hartzen duen salatutako jokabidea 2006ko abenduan hasi zen, eta hurrengo urteetara arte luzatu zen. Hala eta guztiz ere, 2008ko uztailaren 23an hasi zen zigor-espedientea eta, beraz, Lehia Defendatzeko indarrean dagoen 15/2007 Legearen arabera tramitatu da espedientea, lehenengo xedapen gehigarriaren 1. atalean xedatutakoa aplikatuz.

HIRUGARRENA.- ESPEDIENTEAREN HELBURUA.

Espediente honen helburua LDEZk egindako ebazpen-proposamenean dago zehaztuta. Horren arabera, LDEAk ebatzi behar du CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A. enpresak egindako jokabidea —hau da, TALLERES SCALEXTRIC S.L. enpresari SIEMENS-VDO markako takografo analogikoen araudi, instalazio eta kontrolari buruzko ikastarorik ez ematea, ikastaro horiek ezinbestekoak direla aipatutako enpresa horrek merkatuan lan egiten jarraitu ahal izateko araudi aplikagarriak eskatzen duen administrazio-baimena berriro ahal izateko— Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 2.



artikuluko 1. eta 2.c) ataletan debekatutako nagusitasunezko posizioaren abusua den.

LAUGARRENA.- EREFERENTZIAKO MERKATUA

Lehia Defendatzeko Legearen 6. artikuluko 2. zenbakiaren c) letrak debekatu egiten du enpresa batek merkatu nazional osoan edo zati baten duen nagusitasunezko jarrera abusuz erabiltzea, produktuak erosteko edo zerbitzuak eskaintzeko eskariari ezetz esanez, horretarako justifikaziorik eman gabe.

Nagusitasunezko jarrera abusuz erabiltzeko debekua hautsi den egiaztatzeko, lehenengo eta behin, merkatu aipagarriak ezarri behar dira aurretiaz, enpresa inputatuak benetan nagusitasuna duen argitzeko; gero, hala badagokio, merkaturan duen nagusitasunezko egoera hori abusuz erabili duen aztertu beharko da.

LDEZk merkatuaren definizioari buruz egindako txostenean azaldu den bezala, takografoa⁷ errepideko ibilgailu batzuetan instalatzen den kontrol-gailua da, eta modu automatiko edo erdiautomatikoan adierazi eta erregistratzen ditu datu hauek: egindako kilometro kopurua, ibilgailuen abiadura, eta gidariak gidatzeko eta atsedena hartzeko hartu dituzten tarteak. Beste definizio batzuk ere erabili dira, kontrol-gailuak eta kutxa beltzak direla esanez.

Takografoak homologatuta egon behar dira, eta baimendutako tailer edo instalatzaileek instalatu behar dituzte ibilgailuetan.

Takograforen bat instalatzen den bakoitzean, konpontzen den bakoitzean, ibilgailuaren ibilbide-biren kopurua aldatzen den bakoitzean eta tamaina aldatzearen ondorioz pneumatikoen perimetroa aldatzen den bakoitzean egiaztatu eta begiratu beharko dira takografoak. Halaber, gailuen aldi behingo kontrolak egiten dira gutxienez bi urtean behin, eta kontrol-gailuaren erabileran baimendutako gehienezko akatsak betetzeari buruzko kontrola gutxienez sei urtean behin. Kontrol horietan, nahitaez, instalazio-plaka ordeztu behar da.

Takografo mota hauek daude:

- Analogikoak: Paperezko disko-diagrametan erregistratzen dituzte datuak.
- Digitalak: Bi atal nagusi dituzte: Abiadura eta distantziaren sentsorea, eta sistema kontrolatu eta bidezko informazioa erregistratzen duen ibilgailu-unitatea. Gainera, gidari bakoitzak txartel elektronikoa bat du, zerbitzuan hasten denean aktibatzen duena, bertan lanaldiari buruzko informazioa erregistratzeko.

⁷

Iturria:

http://www.fomento.es/MFOM/LANG_CASTELLANO/DIRECCIONES_GENERALES/TRANSPORTE_POR_CARRETERA/IGT/desc/TACO_GRAFO/



Takografo analogikoei dagokienez, tailer baimenduaren baimena lortu⁸ edo berritzeko, langileek takografoen araudi, funtzionamendu, instalazio eta kontrolari buruz gutxienez hiru urtean behin prestakuntza iraunkorra jaso izanari buruzko eguneratutako ziurtagiria eduki beharko da, takografoen fabrikatzaileak edo behar bezala baimendutako ordezkari ofizialak eginda.

Ezarritakoaren arabera, takografo analogikoekin lan egiten duten “Takografoak instalatzeko enpresak” eta “Takografoak aldiari behin berrikusteko baimendutako enpresak” —takografo digitalekin⁹ eta industria-segurtasunaren alorrean baimendutako enpresen¹⁰ beste kategoria batzuetakoekin¹¹ lan egiten dutenak ez bezala, Lanbide Hezkuntzako Zentroek edo baliokideek emandako baimendutako prestakuntza-ikastaroetara¹² joan daitezkeela— fabrikatzaileak edo haien ordezkari ofizialek antolatutako ikastaroetara bakarrik joan ahal izango dira takografo analogikoen araudi, funtzionamendu, instalazio eta kontrolari buruzko prestakuntza eskuratzeko eta horri buruzko jakintzak egiaztatzeko, eta ez dago beharrezko prestakuntza eta, ondorioz, nahitaezko egiaztatzea eskuratzeko beste aukerarik.

Aztertzen gabiltzan kasuan salatu da fabrikatzaileak eta bere ordezkari ofizialak ez diola eskatutako prestakuntza eman nahi izan enpresa salatzaileari. Fabrikatzaileak bakarrik eman dezakeen prestakuntza-ikastarora joan izana ezinbesteko baldintza denez marka horretako takografo analogikoak instalatu,

⁸ Takografoak instalatu, konpondu, begiratu eta aldiari behin berrikusteko tailerren baimenari buruzko 1982ko irailaren 24ko Aginduaren 6 eta 8. artikulua.

⁹ Takografo analogikoetarako ez bezala, honakoa dago ezarrita takografo digitaletarako: *Trebakuntza-prozesuak eta horien aldiari behingo eguneraketak takografo digitalen fabrikatzaileen edo haien legezko ordezkarien prestakuntza-sailetan egingo dira, prestakuntza-sail hori dagoen lekuan industria alorrean eskuma duen organoari aurretiaz jakinarazita. Aukera egonez gero, industria alorrean eskumena duen organoak baimena eman ahal izango du trebakuntza-prozesu horiek autonomia-erkidegoan dauden prestakuntza-zentro ofizialean egiteko, edo UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren arabera ziurtatutako kalitate-sistemadun beste prestakuntza-zentro batzuetan egiteko, betekizun honetan agindutakoa betez.* Takografo digitalak instalatzeko, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko zentro teknikoek bete beharreko baldintza teknikoak eta jardute-arauak ezarri zituen apirilaren 15eko 425/2005 Errege Dekretua (2005eko apirilaren 16ko BOE).

¹⁰ [...] *Enpresa baimendua.- Pertsona fisiko edo juridikoa da, industria-segurtasunaren alorrean jarduerak burutzeko gaitzen duen baimen administratibo egokia duena, hain zuzen ere, instalazioak egin, konpondu, mantendu, berrikusi edo kontrolatzeko jarduerak.* 63/2006 Dekretua, martxoaren 14koa, industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzeko dena. 3. artikulua.

¹¹ Agindua, 2006ko apirilaren 10ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretua garatzen duena. VI. eranskina.

¹² [...] *Prestakuntza-ikastaro baimendua.- Prestakuntzarako lanbide-heziketako ikastetxe batek edo erakunde aintzatetsi batek emaniko ikastaroa da, behar adinako edukia izateagatik industria gaietan eskumena duen organoaren baiespina merezi duena [...]* 63/2006 Dekretua, martxoaren 14koa, industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzeko dena. 3. artikulua.



konpondu eta, oro har, mantentzeko zerbitzuak eman ahal izateko, produktu edo zerbitzuaren erreferentziako merkatua¹³ SIEMENS VDO markako takografo analogikoekin lan egiten duten enpresei administrazio-baimena eman edo berritzeko beharrezko ziurtagiriak eskuratu ahal izateko takografo analogikoen araudi, funtzionamendu, instalazio eta kontrolari buruzko prestakuntzarena da.

Adierazi beharra dago baimendutako prestakuntza-ikastaroen merkatu horretan ez dagoela produktu edo zerbitzu ordezkgarririk, indarrean dauden arauak legezko monopolioa ematen baitiote fabrikatzaileari, eta prestakuntza-ikastaroak eskaintzen dituzten gainerakoei ez dietelako aukerarik ematen fabrikatzaileak emandako ikastaroen homologazio ofiziala izan ditzaketen ikastaroak eskaintzeko. Gauzak horrela, LDEZk ezarri duen produktu edo zerbitzuaren merkatu aipagarria egokia eta bidezkoa da Lehia Defendatzeko Legearen 2. artikulua aplikazioa aztertzeko.

Erreferentziako merkatu geografikoari dagokionez, eragindako enpresek erreferentziako produktuak hornitzeko edo zerbitzuak emateko jarduerak garatzen dituzten gunea hartzen du; lehia-baldintzak nahiko homogeenak izaten dira eta hurbileko beste eremu geografiko batzuetatik bereiz daitezke, bereziki, horietako lehia-baldintza nagusiak nabarmen desberdinak direlako.

Fabrikatzaileak emandako prestakuntzaren merkatuan —beharrezkoa dela takografo analogikoak instalatu, konpondu eta mantentzeko buruzko jakintzak eguneratzeko— ematen den prestakuntza homogenea da, eta horrela hartzen dute eskatzaile guztiek estatuaren eremuan. Horrenbestez, ikuspegi geografikotik, Estatu osoa da merkatu aipagarria, nahiz eta salatutako jokabidearen ondorek eremu txikiagoari eragiten dioten, eskaintako zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta Bizkaiko Lurralde Historikoan mugatu behar dena.

BOSGARRENA.- CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN S.A. ENPRESAK MERKATU AIPAGARRIAN DUEN NAGUSITASUNEZKO JARRERA

Merkatua mugatu ostean, inputatuak bertan nagusitasunezko jarrera duen aztertu behar da. LDEZk ebazpen-proposamenean ondorioztatu du CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN S.A.k nagusitasunezko jarrera duela SIEMENS VDO takografo analogikoen araudi, funtzionamendu, instalazio eta kontrolari buruzko prestakuntzaren merkatu aipagarrian. Hori egiaztatuta dago Takografoak instalatu, prestatu, begiratu eta aldi behin berrikusteko tailerren

¹³ Produktu edo zerbitzuaren erreferentziako merkatuak, lehiaren ikuspegitik, eskatzaileen lehentasun-egitura eduki beharko du kontuan batez ere, hau da, produktu edo zerbitzuen ezaugarriak, prezioa edo eman nahi zaien erabileraren ondorioz eskatzaileek ordezkgarritzat hartzen dituzten ondasun eta zerbitzuak hartu beharko ditu.



baimenari buruzko Industria eta Energia Ministerioaren 1982ko irailaren 24ko Aginduak ematen dion jarreraren bitartez.

Izan ere, bertan adierazitakoaren arabera, marka bakoitzaren fabrikatzaileek edo haien ordezkari ofizialek bakarrik eman ditzakete takografoak instalatu, prestatu, begiratu eta berrikusteko ardura duten langileek hiru urtean behin egin behar dituzten nahitaezko prestakuntza-ikastaroak, horri buruz behar beste dakitela egiaztatzeko beharrezkoak, eta, era berean, horiexek dira jakintzak egiaztatzeko bidezko ziurtagiriak eman behar dituztenak. Beraz, arau-xedapen batek prestakuntzaren monopolioa ezarri du fabrikatzailearen edo bere ordezkariaren alde eta, horrenbestez, ezin da beste moduren batean egiaztatu.

Prestakuntza, bada, monopolioa da fabrikatzaileen edo haien ordezkari ofizialentzat, Ministerioaren agindu horren ondorioz. Izan ere, arauak ezarritakoaren arabera ezinbestekoa da prestakuntza-ikastaroak egitea nahitaezko administrazio-baimenak eskuratzeko, eta aldian behin (hiru urtean behin) berri behar dira "Takografoak instalatzeko enpresen" eta "Takografoak aldian behin berrikusteko baimendutako enpresen" kategorietan lan egin ahal izateko. Hortaz, takografo analogikoen fabrikatzaileek funtsezko zeregina dute takografo analogikoetan esku hartzeko merkatuan sartzeko.

Europako Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak hainbat gaitan iritzi izan du [ikusi, besteak beste, 1985eko urriaren 3ko epaia, CBEM, 16. puntua, Gaia: 311/84; 1991ko apirilaren 23ko epaia, Gaia: C-41/90, Justizia Auzitegiaren 2000ko otsailaren 10eko epaia (Deutsche Post AG vs. Gesellschaft für Zahlungssysteme mbH GZS) (C-147/97) eta Citicorp Kartenservice GmbH (C-148/97)] legezko monopolio baten onurak jasotzen dituen enpresa batek nagusitasunezko jarrera duela ondoriozta daitekeela, Itunaren 86. artikuluan adierazitakoaren arabera. Gauza bera zioen Auzitegi Nazionalak 2005eko otsailaren 7ko epaian (TUBOGAS/REPSOL), Auzitegi Gorenaren 2007ko abenduaren 26ko epaiaren bitartez berretsi zena: *"Lehia Defendatzeko 16/1989 Legearen 6. artikulua aplikazioa ez dago mugatuta jokabide jakin hori nagusitasuna duen enpresaren botere ekonomikotik eratortzen den kasuetarako, eta nagusitasuna duen enpresak abusuz erabiltzen duen abantaila-jarrera sortzen duten lege- edo arau-xedapenetan oinarrituta dagoenean ere aplika daiteke".*

Beste alde batetik, arestian aipatu den 1981eko epaia (Michelín) ere aipatu behar da hemen. Bertan adierazi da nagusitasunezko jarrera duen enpresa batek erantzukizun berezia duela lehiaren itxuraldatu gabeko baldintzak mantentzeko, eta ezin dela ulertu elkarren artean lehiakideak diren bezeroei tratu diskriminatzailea ematearekin bakarrik.

Merkatu honetan marka bakoitzaren fabrikatzaileek edo haien ordezkari ofizialek bakarrik eman ditzakete takografoak instalatu, prestatu, begiratu eta berrikusteko ardura duten langileek hiru urtean behin egin behar dituzten nahitaezko prestakuntza-ikastaroak, horri buruz behar beste dakitela



egiazatzeko beharrezkoak, eta, era berean, horietan dira jakintzak egiazatzeko bidezko ziurtagiriak eman behar dituztenak.

Takografo analogikoekin lan egin nahi duten enpresa edo tailerrek takografo analogikoen araudi, funtzionamendu, instalazio eta kontrolari buruzko prestakuntzaren merkatu aipagarrietara jo behar dute aurretiaz, eta takografoen fabrikatzaileek edo haien ordezkari ofizialek eratzten dituzte horiek.

Gaur egun, jarraian adierazitako taula honetan aipatutakoak dira haien produktuak merkatuan merkaturatzen dituzten takografo-fabrikatzaileak (eta haien markak):

MARKA¹⁴	FABRIKATZAILEA – ORDEZKARI OFIZIALA
ACTIA	SELLING, S.L.
MOTOMETER	GROVISA, S.A.
SIEMENS VDO	CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A., POZO COGULLADA, S.A. ¹⁵
STONERIDGE-VEEDER ROOT	TVI EUROPE, LTD.

Iturria: LDEZk eginda, prestakuntza-ziurtagiriak oinarri hartuta

Takografo analogikoak instalatu, konpondu eta mantentzeko merkatua kontuan hartuta (salatzaileak bertan jarraitu nahi du), are eta garrantzitsuagoak dira aztertzen gabiltzan jokabidearen ondorioak. Horrela bada, eman diren datuetatik ondorioztatu da salatu den enpresa fabrikatzaileak aipatutako merkatuan duen jarrera nagusitasunezkoa dela argi eta garbi, bertan esku hartzen den SIEMENS VDO markako gailuen portzentajea (% 90 ingurukoa Bizkaian) kontuan hartuta. Fabrikatzaileak eskumen eksklusiboa du bere markako takografo analogikoak instalatu, mantendu eta konpontzeko merkatuan sartu nahi duten tailerretako langileei prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko baimena eman edo ukatzeko eta, ondorioz, konponketa-tailerrek merkatu horretara sartzeko eta bertan jarraitzeko duten aukera kontrola dezake, merkatuan duen kuota oso handia delako.

Hain zuzen ere, LDEZk proposamen-txosteneko 1. eranskinean emandako datuetatik ondorioztatu da (jarraian adierazi dira datuok) SIEMENS markak nagusitasuna duela takografo analogikoen merkatuan.

¹⁴ Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak beste marka bat aipatzen du, JAEGER (136. folioa), baina EAEn takografo analogikoekin lan egiteko inkestatutako baimendutako tailer batek ere ez du marka hori aipatzen. Dagoeneko ez da marka hori egiten.

¹⁵ Continental Automotive Spain, S.A.k banaketa-kontratua dauka sozietate horrekin Euskal Autonomia Erkidegoan, eta sozietate horrek Kantabrian, Nafarroan, Errioxan, Aragoian eta Sorian ere egiten du lan (479. folioa).



2007an TAKOGRAFO ANALOGIKOETAN EGINDAKO ESKU-HARTZEAK: KALKULUA

ENP. KOP.	LH	ESKU-HARTZEAK	ACTIA	MOTOMETER	SIEMENS VDO-KIENZLE	VEEDER-ROOT – STONERIDGE	GUZTIRA
7	ARABA	GUZTIRA	0	111	1.510	86	1.707
	ARABA	PORTZENTAJEAK	% 0,0 0	% 6,50	% 88,46	% 5,04	% 100,00
16	BIZKAIA	GUZTIRA	80	60	3.347	548	4.035
	BIZKAIA	PORTZENTAJEAK	% 1,9 8	% 1,49	% 82,95	% 13,58	% 100,00
11	GIPUZKOA	GUZTIRA	0	0	4.344	598	4.942
	GIPUZKOA	PORTZENTAJEAK	% 0,0 0	% 0,00	% 87,90	% 12,10	% 100,00
34	EAE	GUZTIRA	80	171	9.201	1.232	10.684
	EAE	PORTZENTAJEAK	% 0,7 5	% 1,60	% 86,12	% 11,53	% 100,00

Iturria: LDEZk eginda, takografo analogikoak instalatu, konpondu, begiratu eta berrikusteko baimendutako tailerrek emandako datuak oinarri hartuta.

Koadro horretan azaldutako datuak kontuan hartuta, enpresa salatuaren jokabideak, hau da TALLERES SCALEXTRIC S.L. araudi aplikagarriak eskatzen duen prestakuntza jasotzeko aukeratik kanpo uzteak, zuzeneko eragina du takografo analogikoak instalatu, konpondu eta mantentzeko merkaturan, SIEMENS-VDO markako produktuetan egindako esku-hartzeen kuota dela nagusi, eta salatzailea baztertua geratzen dela.

Lehen Auzialdiko Auzitegiak, 2003ko abenduaren 17ko epaian (Gaia: T-219; Atala: 127), honakoa ezarri zuen: "*Nagusitasunezko jarreraren abusua enpresa hori nagusi den sektoreko merkaturan egin baina ondorioak enpresak nagusitasuna ez duen beste merkatu batean nabaritzen direnean, 82. artikulua aplikazio-eremuan egon daiteke, betiere beste merkatu horren eta lehenengo merkatuaren arteko harremana nahikoa denean*".

Printzipio hori aztertzen gabiltzan gaiari aplikatuta ondoriozta daiteke salatzailea eskatutako prestakuntza-ikastaroetatik kanpo uzteak zuzeneko eragina duela salatzaileak takografo analitikoak instalatu eta mantentzeko merkaturan duen jarreraren, merkatu horretan SIEMENS-VDO markako produktuak direlako esku-hartze gehien izaten dituztenak (% 90) eta, beraz, praktikan, salatutako enpresa merkatu horretatik kanpo geratzen da.

SEIGARRENA.- CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN SA ENPRESAREN ABUSUZKO PORTAERA.



Merkatu aipagarria mugatu eta salatutako enpresa fabrikatzaileak duen nagusitasunezko jarrera egiaztatu ondoren, salatu den jokabidearekin Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 2 c) artikuluan aurreikusitakoaren araberrako abusuzko jokaera egin den aztertu behar da.

Gauzak horrela, Auzitegiak gogoan izan behar du, doktrina sendotu gisa, eragile ekonomiko batek nagusitasunezko jarrera duenean, merkatuan lehiatzeko duen eskubide eta beharrari uko egin gabe, erantzukizun berezia duela bere jokaera guztietan. Horrela bada, jokaera guztiak behar bezala justifikatuta egon behar dira, eta gainerako lehiakideei dagokienez —bai eta bezero edo kontsumitzaileei dagokienez ere— bidezkoa ez den portaera edo lehia murriztea ez dakarten baldintza objektiboetan oinarrituta. Erantzukizun hori are eta modu arduratsuagoan kudeatu behar da nagusitasunezko jarrera araudi-xedapen baten bitartez eskuratu edo indartzen denean.

Kasu honetan, enpresa fabrikatzaileak takografo analogikoak instalatu, konpondu eta mantentzeko merkaturan lehiatzen diren enpresetako langileei berariazko prestakuntza iraunkorra emateko duen beharra modu objektiboan bete behar da, prestakuntza hori eman nahi ez izatearen ondorioak zuzenekoak baitira aipatutako merkaturan, enpresa bat, enpresa salatzailea, merkatu horretatik kanpo uzten baita. Hori dela eta, jokabidea abusuzkoa den aztertzeko, justifikazio objektiboa duen ebatzi behar da, justifikazio objektiboa dagoela frogatuz gero, jokabidea ez bailitzateke abusuzkotzat hartu behar izango.

Are gehiago, oinarritzko erraztasunen doktrina (*essential facilities*) izenekoa aipatu behar da, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak Europa mailan eta gaur egun desagertuta dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak nazio mailan aplikatzen dutela hainbat erabakiren bitartez. Horiek, produktuen edo zerbitzuen eskaerak justifikaziorik gabe eman nahi ez izatearen bazterkeriatik eratorritako abusuzko jokabideei xedapenak aplikatzeko irizpideak ezarri dituzte (Europako Erkidegoa eratzekeo Itunaren 86. artikulua eta Lehia Defendatzeko 16/1989 Legearen 6. artikulua, hurrenez hurren).

Zehatz-mehatz, Europako eremuan, behearako beste merkatu batean lehiatu ahal izateko oinarritzko eta ezinbesteko azpiegitura edo sare batean sartzeko ezezko erantzunari dagokionez (oinarritzko erraztasunen doktrina), aipatzekoak dira, besteak beste, Bronner gaia (EEJAren 1998ko azaroaren 26ko epaia, C 7-97) eta Magill gaia (EEJAren 1995eko apirilaren 6ko epaia, C-241/91 P eta C-242/91 P). Horietan adierazi zen bazterkeria eragiten duen elementu erabakigarria bezeroak eragile nagusiaren produktu edo zerbitzuarekiko duen mendekotasuna dela, hori eduki ezean ezin baita behearako merkaturan lehiatu eta, gainera, ezin da bikoiztu.

Gaur egun desagertuta dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak ere horri buruzko epaia emateko aukera izan du hainbat erabakitan (2002ko martxoaren



7ko ebazpena, C513/01, Tubogas/Repsol, eta 2006ko apirilaren 17ko ebazpena, R 654/05, Interflora/Tanatorios de Castellón). Horietan adierazi zuen nagusitasunezko jarreraren abusuaren debekua aplikatu behar zaiela merkatuan nagusitasunezko jarrera duten enpresei, beherakako merkatu batean lehiatzeko ezinbesteko zerbitzu bat ematea ukatu edo baldintzatzen dutenean inolako justifikaziorik gabe .

Amaitzeko, ildo berean, Frantziako Conseil de la Concurrence delakoak argitaratutako irizpena aipatu behar da (Avis 02-A-08), horrelako kasuetan nagusitasunezko jarreraren abusua dagoen ikusteko irizpideak ezartzen baitira bertan.

Irizpen horretan Conseil de la Concurrence izenekoak uste du nagusitasunezko jarreraren abusua dagoela zehazteko honako irizpide hauek bete behar direla:

- Enpresa batek azpiegitura edo zerbitzu bat izatezko edo legezko monopolioan dauka.
- Azpiegitura edo zerbitzu hori lortzea ezinbestekoa da nagusitasuna duen enpresak jarduten duen merkatuaren gorakakoa, beherakakoa edo osagarria den merkatu batean lehiatu nahi diren beste enpresa batzuentzat.
- Oinarrizko azpiegitura edo zerbitzua ezin da arrazoizko baldintzetan eman.
- Nagusitasuna duen enpresak, justifikazio objektiborik gabe, ukatu egin dio enpresa bati azpiegitura edo zerbitzu hori eskuratzeko aukera.
- Azpiegitura edo zerbitzu hori lortzeko aukera dago baldintza arruntetan.

LDEZk auzitegi honi emandako ebazpen-proposamenean adierazi zen TALLERES ELECTROMECAÑICOS SCALEXTRIC S.L. enpresa salatzaileak gutxienez 1985eko martxoaren 7tik eduki izan duela baimena takografo analogikoak instalatu eta konpontzeko enpresaren lanak egiteko.

LDEZk adierazi zuen hasieran Kienzle markaren tailer ofiziala izan zela (ondoren SIEMENS VDO KIENZLE izan zena) eta, beraz, fabrikatzaile horren baimena zuen bere markarekin lan egiteko. Fabrikatzaile horrekin zuen kontratu-harremana hautsi zenean, eta ondorioz Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailaren baimena galdu zuenean —Industria eta Energia Saileko Administrazio eta Plangintzako sailburuordearen 1993ko irailaren 27ko ebazpenaren bidez geratu zen baimena ondorerik gabe—, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Merkataritza Sailak 1994ko ekainaren 17an emandako baimenarekin lan egiten jarraitu zuen, dekretu honen babespean: 175/1994 Dekretua, maiatzaren 17koa, Industria eta Energia Sailarena, Profesionari Txartelak ateratzeko bidea bateratu eta instalazioak, mantentze-lanak edo industri segurtasunaren alorreko bestelako iharduerak egiten dituzten Enpresa Baimendunentzako eskakizunak zehazten dituena. Bertan xedatutakoaren arabera, *Profesionari Baimendunen trebakuntzarako Erakunde Onetsiak* izenekoek eman ahal izango dituzte prestakuntza-ikastaroak, eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailak baimendutako erakundeak dira



horiek. Erakunde Onetsi izendatu ahal izango dira, besteak beste, araupeko lanbide-hezkuntzako ikastetxe publiko edo itunduak, Eusko Jaurlaritzak zereginetako hezkuntza eta lanbide birziklapenerako babesturiko zentroak eta bestelako erakunde pribatuak, betiere dekretu horretan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Baimen hori hiru urtean behin berritu zen, 2003ko azaroaren 5ean azkenekoz berritu zen arte (2006ko azaroaren 5era arte balio zuen), Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Bizkaiko Lurralde Bulegoko buruak eman zuen baimendutako enpresaren ziurtagirian azaltzen den bezala.

Ondoren, TALLERES ELECTROMECAÑICOS SCALEXTRIC S.L.k ezin izan zuen lizentzia modu berean berritzen jarraitu, Auzitegi Gorenaren 2003ko maiatzaren 5eko epaiaren bitartez, baliogabetu egin baitziren maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretuaren I. eranskineko I.18 atala, II. eranskineko II.17 atala eta IV. eranskineko IV.31 atala, takografoei buruzkoak guztiak. Izan ere, Auzitegiak ondorioztatu zuen gai horren eskumena Estatuarena zela eskusiboki eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoak ezin zuela arautu. Horrenbestez, egun horretatik aurrera, takografoekin lan egiten zuten tailerrek fabrikatzaileak edo bere baimendutako ordezkariak egindako ziurtagirien bitartez bakarrik egiaztatu behar zuten prestakuntza-ikastaroak egin zituztela. Hau da, ebazpen horretatik aurrera, fabrikatzaileek berriro berreskuratu zuten prestakuntzaren monopolioa, prestakuntza hori beharrezkoa dela takografo analogikoak instalatu eta konpontzeko merkatuan sartu edo mantendu nahi duten enpresa guztientzat.

Epai horren ondorioz, enpresa salatzailleak, maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretuaren babesean emandako baimena zuela, baimena berritu ahal izateko, eguneratuta eduki behar zuen bere langileen prestakuntza eta, horretarako, beharrezko prestakuntza-ikastaroan parte hartzeko informazioa eskatu zion hainbat aldiz SIEMENS-VDO-KIENZLE enpresari (2006ko abenduaren 22an eta 2007ko urtarrilaren 15ean).

Enpresa horrek ezetz erantzun zion, bestelako justifikaziorik egin gabe: *“Horiei dagokienez [idazkiei buruz ari da] honen bitartez adierazi nahi dizuegu ezin dugula zuek eskatutakoa bete, ez baitago horretarako oinarririk”*.

Salatzailleak berriro egin zion eskaera salatuari, eta mesedez eskatu zion bere eskaera ezin onartu izanaren arrazoiak zehazteko, bai eta demandatuak dei litzakeen ikastaroetan parte hartu ahal izateko oinarririk ez zegoela uste izateko arrazoiak zehazteko ere. Hori guztia, eskabidea baztertu izanaren ondorioz sortutako egoera Administrazioari jakinarazteko asmoz egin zen.

Berriro ere, enpresa salatuak ezezko erantzuna eman zuen, horretarako justifikaziorik azaldu gabe: *“[...] berriro esan nahi dizuegu ez dagoela zuen eskaera betetzeko oinarririk”*.



Jasotako erantzunak ikusita, 2007ko martxoaren 27an salatzaileak egoeraren berri eman zion Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari. Halaber, takografo analogikoetan esku hartzeko baimenduta zeuden enpresek prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko legezko eskubidea bermatuta izateko bidezko neurriak har zitzala eskatu zion.

Industria eta Merkataritza Sailak, enpresa bere jarduerarekin jarraitzeko defentsarik gabe egon dela ondorioztatu zuenez, informazioa eskatzeko idazkia bidali zion SIEMENS VDO AUTOMOTIVE, S.A. enpresari 2007ko ekainaren 28an, Talleres Scalextric S.L. enpresari prestakuntza-ikastaroak ukatu izanaren arrazoiak azal zitzaiz.

Salatuak Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren informazio-eskabideari eman zion erantzunak ez du ezer ere azaltzen salatzaileari prestakuntza ukatu izanaren arrazoiei buruz, honakoa baino ez baitio: “[...] *Administrazio horrek bidali digun eskabidea zein arau eta aginduren bidez dagoen babestuta jakinarazteko eskatu nahi dugu*”.

Adierazi behar da, era berean, LDEZk informazioa eskatzeko idazkia bidali ziola 2008ko urtarrilaren 30ean SIEMENS VDO AUTOMOTIVE enpresari, eta enpresa salatuak aurrekoen ildotik erantzun zuela. Honakoa adierazi zuen: *“Bai enpresa auzi-jartzailea eta bai demandatua eremu pribatukoak dira eta merkataritza-askatasunaren arauak arautzen dituzte, eta ez dago eskubide eta betebeharrak ezartzen dituen inolako itun, kontratu, hitzarmen edo konpromisorik, ez eta eskubide hori eta ondoriozko betebeharra ezartzen dituen araurik ere”*.

Konstituzioak ematen duen enpresa-askatasunari buruz salatuak behin eta berriz argudiatutako alegazio horri dagokionez, aipatu behar da askatasun hori ez dela mugagabea, eta legeen arabera egokitu behar dela, batez ere Lehia Defendatzeko Legearen arabera. Horrela bada, debekatuta dago nagusitasuna duten enpresek legez kontrako eta abusuzko jokabideak egitea, lehia murriztu eta merkatuen funtzionamendu egokiari eragiten badiote. Desagertuta dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak, 2002ko apirilaren 24ko ebazpenean (486/00 espediente. McLane/Tabacalera), enpresa-askatasunari muga horiek ipini izanaren arrazoiak azaldu zuten: *“Espainiako Konstituzioak merkatu-ekonomiaren eremuan aipatzen duen enpresa-askatasunari dagokionez, TABACALERAk argudiatu du mugarik gabeko kontratazio-askatasuna hartzen duela, baina hori ez da horrela. Espediente honek azaltzen duen lehia-eskubideari dagokionez, nahikoa izango litzateke esatea bertako eduki asko, hain zuzen ere, kontratazio-askatasuna mugatzeko debekuak direla. Bada, behar bezala funtzionatzeko, ezinbestekoa izango da lehia garbia hausten duten edo hausten saiatzen diren eragile ekonomikoen jokabideetatik babestea, lehia suntsitu edo baretu egiten denean merkatuak ez duelako behar bezala funtzionatzen jarraituko, eta ezin izango duelako bere zereginak behar bezala betetzen jarraitu, zeregin horien artean nabarmentzekoa dela gizartearen baliabideak (beti eskasak direnak) behar bezala esleitzea. Konstituzioak emandako*



merkatu-ekonomia da, hain zuzen ere, agintari publikoek lehia garbiaren kontrako jokabideak zigortzea justifikatzen duena, eta horrek sarri kalte egiten dio kontratazio askeari”.

Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da gai honetan salaketaren arrazoia ez dela izan salatuak ez duela merkataritza alorreko kontratu-harremanik ezarri nahi izan salatzailearekin, baizik eta salatuak salatzaileari ukatu egin diola salatzaileak takografo analogikoen merkatuan jarraitu ahal izateko nahitaez (araz) egin behar dituen prestakuntza-ikastaroetara joateko aukera.

Kontua da salatzaileak deskribatutako jokabidearen ondorioz TALLERES ELECTROMECAÑICOS SCALEXTRIC, S.L. enpresak ezin duela jarraitu SIEMENS-VDO markako takografo analogikoak konpondu, begiratu, instalatu eta muntatzeko merkatuan, fabrikatzaileak ez diolako baimen edo aukerarik ematen prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko, eta ez da baimena ukatu izanaren justifikazio objektiborik eman.

Salatutako jokabidearen ondorioek eragin zuzena dute takografo analogikoak konpondu, instalatu eta mantentzeko merkatuan, eta salatzaileari eragotzi egiten diote merkatuan jarraitzea. Izan ere, SIEMENS-VDO markako takografoak dira gehien konpondu, instalatu eta begiratzen direnak, bai Bizkaiko Lurralde Historikoan (bertan dago tailerra) eta bai Euskal Autonomia Erkidegoan ere, Zerbitzuak egindako txostenetik ondorioztatu denez.

LDEZaren proposamenari alegazioak aurkezteko idazkian, enpresa salatuak, lehenengoz instrukzio-fasean, Lehen Auzialdiko Madrilgo 2. Auzitegiaren 1996ko urriaren 11ko epaiaren kopia aurkeztu zuen. Epai horren bitartez, enpresa bien artean kontratu-harremana zegoen garaian sortu zen gatazka bat ebatzi zen.

Auzitegi honek uste du salatutako enpresak aipatutako epaia aurkeztuta izan duen helburua, ebazpen judizial hori eman zenetik igaro den denbora luzea izan arren, TALLERES SCALEXTRIC S.L.ri administrazio-baimen egokia eskuratzeko beharrezko ziurtagiria lortzeko ematen diren prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea ukatzeko jarrera justifikatzea izan dela.

Auzitegi honek uste du agiri horrek ez duela objektiboki justifikatzen salatutako jokabidea, honako arrazoi hauek direla eta:

- Alde batetik, salatzaileak CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A. enpresari eskatu diona SIEMENS-VDO markako takografoak instalatu eta konpontzeko merkatuan jarraitzeko ezinbesteko prestakuntza izan da, eta ez enpresa salatuarekin kontratu-harremana berriro hastea (sare ofizialeko kidea izateko).
- Beste alde batetik, esan den bezala, merkatu horretan sartu edo jarraitzeko beharrezko eta ezinbesteko prestakuntza fabrikatzaileak edo



bere ordezkari ofizialak eman behar du, horrelaxe baitago ezarrita sektore horretan aplikatu beharreko araudian.

- Ez dago beste aukerarik sektore honetan aplikatu beharreko araudiak eskatutako prestakuntza lortzeko.

Arestian aipatu denez, fabrikatzaileak eskubidea dauka bere enpresa-askatasuna erabiltzeko (bereziki beste enpresa batzuekin dituen merkataritza-harremanetan), baina arauen arabera modu eskusiboan dagokion eta beste merkatu batean sartzeko ezinbestekoa den zerbitzua (berariazko prestakuntza) kudeatzean, ardura berezia eduki behar du eta antolamendu juridikoa bete, batez ere Lehia Defendatzeko Legea.

CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A.k etengabe eta justifikazio objektiborik eman gabe ukatu izan dio prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko aukera TALLERES SCALEXTRIC S.L. enpresari, eta ikastaro horiek ezinbestekoak dira merkatu horretan lan egiteko nahitaezko administrazio-lizentzia eskuratzeko. Auzitegi honek uste du jokabide hori arbitrarioa eta abusukoa dela, eta ez duela justifikazio objektiborik. Jokabide hori SIEMENS-VDO markako takografo analogikoen araudi, funtzionamendu, instalazio eta kontrolari buruzko prestakuntza-ikastaroen merkatuan nagusitasunezko jarrera duen enpresa batek egin du, eta araudi-xedapenaren ondorioz du nagusitasuna.

Jokabide horren ondorioek interes orokorrari eragiten diote, merkatu horretatik kanpo uzten duelako enpresa salatzailerak, fabrikatzailearen tailerren sare ofizialeko kide diren enpresen jarrera hobetu eta indartzen duelako eta, ondorioz, kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesa gutxitzen duelako (hautatzeko gaitasuna mugatzen zaielako).

Hori guztia dela eta, jokabide hori Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 2 c) artikulua kontrakoa dela ondorioztatu behar da.

ZAZPIGARRENA.- ZIGORRA ZEHAZTEA

Salatutako jokabidea 2006. urtean hasi zen, eta gaur egunera arte luzatu da. Jokabideak iraun duen bitartean bi arau egon direnez indarrean (16/1989 Legea eta 15/2007 Legea), 30/1992 Legearen 128. artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresa inputatua onuradunena dena aplikatu behar du Auzitegiak, kasu zehatzean arau-hauslearentzako zigor-arau kaltegarrienaren atzeraeraginik ezaren eta mesedegarrienaren atzeraeraginaren printzipioak aplikatuz. Isunen zenbatekoa kalkulatzeari dagokionez 16/1989 Legea da mesedegarriena enpresa salatuarentzat eta, horrenbestez, Auzitegiak uste du horixe izan behar dela zigorra kalkulatzeari dagokionez egotzitako jokabideari aplikatu beharreko legea. Zigor-espedientearen gainerakoari dagokionez, bigarren oinarrian azaldu



den bezala, jokabidea 15/2007 Legearen 2 c) artikuluan inkardinatuta dago — bertan adierazitakoa bat dator 16/1989 Legearen 6.2 c) artikuluan aurreikusitakoarekin— eta espedientea 2008ko apirilaren 1ean hasi zen eta, ondorioz, bai kalifikazio juridikoa eta bai tramitazioa 15/2007 Legearen arau prozesalen arabera egin da, horixe baitio bertako lehenengo xedapen iragankorreko 1. atalak.

16/1989 Legearen 9. artikulua dio lege beraren 6. artikuluan (15/2007 Legearen 2. artikuluan) deskribatutako jokabideak egiten dituztenei agindeia egin ahal izango diela LDEAk, jokabide horiek utz ditzaten eta, hala badagokie, eragin dituzten ondorioak zuzen ditzaten.

Lehia Defendatzeko Legearen 10. artikulua ahalmena ematen dio LDEAri arauak hausten dituzten eragile ekonomikoei 901.518 eurora arteko isunak ezartzeko. Isunaren zenbatekoa haztatzeko arau-haustearen garrantziari begiratu beharko zaio eta, horretarako, aginduak dioenez, honako faktore hauek hartuko dira kontuan: a) lehia-murrizketaren modalitatea eta garrantzia; b) eragindako merkatuaren neurria; c) enpresa horren merkatuko kuota; d) lehia-murrizketak lehiakideengan edo lehiakideak izan daitezkeenengan, prozesu ekonomikoko beste alderdi batzuegan eta kontsumitzaile eta erabiltzaileengan duen ondorioa; e) lehia-murrizketaren iraupena, eta f) debekatutako jokabideak behin baino gehiagotan egitea.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera, 16/1989 Legearen 10. artikulua LDEAri ematen dion eskumena erabiltzeko dauden inguruabarrak haztatu behar dira, egotzitako gertaeren eta eskatutako erantzukizunaren arteko beharrezko eta bidezko proportzionaltasuna zehaztearren. Izan ere, egindako arau-haustearen garrantziaren arabera ezarri behar dira zigorrak, bai eta proportzionaltasun-irizpidearen arabera ere, betiere gertaeraren inguruabar objektiboei begiratuz (Auzitegi Gorenaren 2006/02/21eko epaia, besteak beste). 16/1989 Legearen 10. artikulua berak legez kontrako jokabidearen larritasuna eta egileari eskatu beharreko erantzukizunaren arteko proportzionaltasun hori lortzeko kontuan izan behar diren irizpideak ezartzen ditu. Irizpide objektibo horiek, Auzitegi Gorenak ere adierazi duenez, LDEAri isunen zenbatekoa ezartzeko eman behar zaion ezinbesteko tartea mugatzen dute, tarte zabal baina ez erabat mugagabeetan. Honela dio: *“zorrotz eskatzeko moduko “zigordosimetriaren” parametroekiko lotura aritmetikorik gabe [...], horrelako zigorerabaki guztiei datzekio-eta, zorrozki errepresiozkoa den helburuaz gain, hau da, merkatuaren lehia-funtzionamenduan zehaztutako interes publikoak, gardentasuna eta kontsumitzaileen babesa defendatzea, etorkizuneko jokabideen disuasio-elementuak sartuz errepresiozko tresnei. Zigorrak gertaeren larritasunaren arabera egokitzeko horrelako balioztatzeetarako irizpide nagusi moduan, gainera, kontuan izan behar da lehiaren kontrako arau-haustea egitea ez dela hautsitako arauak betetzea baino onuragarriagoa izan behar arau-haustearentzat. Irizpide hori, 16/1989 Legearen 10. artikuluan hitzez hitz adierazi ez den arren, 2. ataleko a), c) eta d) letretan inplizitua dela ondoriozta daiteke, bai eta 150 milioi pezetako zigor-muga enpresa arau-*



hauslearen salmenta-bolumenaren ehuneko hamarrera arte handitzeko gaitasunean ere (10. artikulua, lehenengo atala).” (Auzitegi Gorenaren 2005/03/23ko epaia).

Helburua hori dela, nagusitasunezko jarrera abusuz erabiltzeko debekua haustea ez dadila izan hautsitako araua (15/2007 Legearen 2.c artikulua) betetzea baino onuragarriagoa arau-hauslearentzat, zigor-ahalmena mugatzen duen 16/1989 Legearen 10. artikuluko irizpide objektiboetako bat arau-haustearen iraupena da. LDEZk dio abusua 2006. urtean hasi zela, eta gaur egunera arte luzatu dela.

Arestian aipatutako hausnarketei jarraituz, zigorraren zenbatekoa ezartzeko, arau-haustearen iraupenaz gain, honako faktore edo inguruabar objektibo hauek izan ditu kontuan LDEAk:

- Jokabidea nagusitasunezko jarrera duen enpresak egindako abusua izan da.
- Nagusitasunezko jarrera arau-bidez eskuratu du.
- Jokabidearen ondorioz, takografoak konpondu eta mantentzeko merkatutik kanpo utzi da salatzailea, salatuaren produktuek merkatuko kuota oso handia hartzen dutela (% 90 Bizkaian).
- Inolako justifikazio objektiborik gabe salatzaileari prestakuntza eman nahi ez izanak mesede egiten die fabrikatzailearen markako sare ofizialeko kide diren enpresei.

Beste alde batetik, zigorra kuantifikatzeko, enpresaren jokaeran dauden aringarri eta larrigarriak aplikatu behar dira.

Inguruabar aringarriei dagokienez, onartu egin behar da LDEZk proposatutako inguruabarra. Horren arabera kontuan izan behar da 2006ko maiatzaren 1etik aurrera¹⁶ 3,5 tona baino gehiagoko pisua duten edo gidaria barne 9 pertsona edo gehiago eraman ditzaketen ibilgailu guztiek (salbuespenak salbuespen), lehenengoz matrikulatzen direnean, takografo digitalak eduki beharko dituztela. Ondorioz, takografo analogikoa eta digitala bost eta hamar urte bitarteko aldian

¹⁶ 561/2006 (EE) Araudia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2006ko martxoaren 15ekoa, errepide-garraioaren sektorean gizarte-arloko zenbait xedapen harmonizatzeari buruzkoa, eta Kontseiluaren 3821/85 (EEE) eta 2135/98 (EE) Araudiak aldatu eta Kontseiluaren 3820 (EEE) Araudia indargabetzen duena. 29. artikulua: *Araudi hau 2007ko apirilaren 11n sartuko da indarrean, baina salbuespena izango dira [...] eta 27. artikulua, 2006ko maiatzaren 1ean sartuko baitira indarrean. (27. artikulua: 2135/98 (EE) Araudia jarraian zehaztu bezala aldatuko da: [...] 561/2006 (EE) Araudia argitaratu eta hogeigarren egunetik aurrera [...], zirkulazioan lehenengoz ipiniko diren ibilgailuek kontrol-tresna eduki beharko dute, 3821/85 (EEE) Araudiaren 1B eranskinean azaldutakoaren arabera.)*

FOM/1190/2005 Agindua, apirilaren 25ekoa, takografo digitalaren ezarpena arautzen duena. Azken xedapenetatik lehenengoa: *Ibilgailuak takografo digitalarekin matrikulatzeko beharra ezartzen den egunetik aurrera eskatu ahal izango dira agindu honetan araututako takografo-txartelak.*



egongo dira elkarrekin ibilgailu industrialetan¹⁷, lehenago matrikulatutako ibilgailuek gailu analogikoa mantendu ahal izango baitute bizitza erabilgarria eduki bitartean. Horrenbestez, takografo analogikoen araudi, funtzionamendu, instalazio eta kontrolari buruzko prestakuntzaren merkatu aipagarria beherakakoa da, horien indarraldi eta beharrezana takografo analogikoak egotearekin baitago lotuta. Beherakako joera hori takografo analogikoen inguruan sortutako gainerako merkatu guztietan ere ikusten da, esaterako takografo analogikoaren merkatuan —ia desagertuta dagoena¹⁸— edo takografo analogikoetan esku hartzeko merkatuan —gainbeheran—. Merkatu hori 2016. urtearen inguruan desagertuko dela aurreikus daiteke, horixe baita gaur egun takografo analogikoekin dabiltzan ibilgailuak berritzeko kalkulatu den azken data.

Hori guztia oinarri hartuta, LDEAk uste du zuzenbidearen arabera dela CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN, S.A.ri 700.000 euroko isuna ezartzea, Lehia Defendatzeko Legearen 10. artikulua arabera kasu honetan ezar litekeen gehienez 901.518 euroko isuna baino txikiagoa.

¹⁷ Salgaiak Garraiatzeko Espainiako Konfederazioko (CETM) Prestakuntza eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak *Europa Press*-en egindako adierazpenak.

¹⁸ Praktikan, trukera mugatuta egongo litzateke, edo *...ibilgailu barruko unitate analogiko akastunen zerbitzuko trukearen aldageta bakarrera*, Takografo digitalak instalatzeko, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko zentro teknikoek bete beharreko baldintza teknikoak eta jardute-arauak ezarri zituen apirilaren 15eko 425/2005 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.



Hori guztia dela eta, aipatutako aginduak eta oro har aplikatu beharreko beste batzuk aztertu ondoren, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak honakoa eman du:

EBAZPENA:

LEHENENGOA.- Adierazi egingo da CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN S.A.k Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 2.2.c) artikulua debekatzen duen nagusitasunezko jarreraren abusua egin duela, TALLERES SCALEXTRIC, S.L.ri ukatu eta eragotzi egin diolako, justifikaziorik gabe, takografo analogikoak instalatu, konpondu eta kontrolatzeari buruzko merkatuan lan egiteko eskatzen den administrazio-baimena eskuratu ahal izateko araudian ezarritakoaren arabera hiru urtean behin egin behar den prestakuntzan parte hartzea.

BIGARRENA.- 700.000 euroko isuna ezarriko zaio CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN S.A. enpresari, eta ebazpen honen eranskinean zehaztutako jarraibideen arabera ordaindu beharko da.

HIRUGARRENA.- CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN S.A.ri aginduko zaio etorkizunean ez dezala egin zigorra jasotzea eragin dutenak bezalako jardunbiderik.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen xedapen-atala *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* eta Euskal Autonomia Erkidegoan gehien saltzen diren informazio orokorreko egunkari bitan (ekonomiari buruzko orrialdeetan) argitaratzeko aginduko zaio CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN S.A.ri. Berak ordaindu beharko du, eta bi hilabeteko epea edukiko du horretarako, ebazpen hau jakinarazten zaionetik aurrera zenbatzen hasita. Agindutakoa bete ezean, 600 €-ko hertsatzeko isuna ezarriko zaio zigortutako enpresari atzeratutako egun bakoitzeko.

BOSGARRENA.- CONTINENTAL AUTOMOTIVE SPAIN S.A.k aurreko ataletan ezarritako betebeharrak bete dituela justifikatu beharko du Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan.

SEIGARRENA.- Agindeia egingo zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, ebazpen hau guztiz betetzen den begiratu eta zain dezan.

Ebazpen hau Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia



Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtoa, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

ERANSKINA

JARRAIBIDEAK

Ezarritako zigor ekonomikoa ordaintzeari dagokionez

Lehenengoa.- Zenbatekoa ordaintzeko zuzeneko diru-sarrera egin beharko da erakunde hauen edozein sukurtsaletan: CAJA LABORAL-EUSKADIKO KUTXA 3035-0012-77-0120900367; CAJA VITAL-VITAL KUTXA 2097-0178-12-0015172561; BBK 2095-0611-05-2131000143; KUTXA GIPUZKOA 2101-0381-09-0002788214; edo BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA (BBVA) 0182/5685/07/0000226271. Diru-sarrera “Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren” izenean egin beharko da, isuna ezartzea eragin duen eta Auzitegi honetan dagoen espediente-zenbakia zehaztuz.

Bigarrena.- Isuna ordaintzeko epeei dagokienez, abuztuaren 31ko 212/1998 Dekretuak onetsi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Dirubilketa Erregelamenduaren 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoari jarraitu beharko zaio (1998ko urriaren 1eko 187. zenbakiko EHAA).

Hirugarrena.- Isuna ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan (Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ).

Vitoria-Gasteizen, 2010eko urtarrilaren 20an

LEHENDAKARIA
JAVIER BERASATEGI TORICES

LEHENDAKARIORDEA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

KIDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI

